



TOLOSAKO  
UDALA

## **TOLOSAKO UDALA**

### ***Iragarkia***

Tolosako Udalak, 2021eko martxoaren 24an, Zinegotzi delegatuaren 2021/542 zkidun. Dekretu bidez, **Euskal Herria Plazako 1B eraikinean gazteentzako zuzkidura-bizitokiak erabilera zesioan esleitzeko eskatzaileen zerrenda berria osatzeko deialdia egitea.**

**Epea:** Hortaz, aipatutako deialdiaren zehaztasunak argitaratzen dira eta izena emateko 20 lanegunetako ezartzen da: Apirilaren 19tik maiatzaren 14a bitartean (biak barne)

**Eskabidea eta dokumentazioa**  
Udalaren Erregistro Orokorrean (UDATE) edo Telematikoki Udalaren erregistro elektronikokoaren bidez ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)) aurkeztu beharko dira.

**EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1B ERAIKINEAN GAZTEENTZAKO ZUZKIDURA BIZITOKIEN ESLEIPENDUNEN ZERRENDA ETA ITXARON ZERRENDA OSATZEKO DEIALDIA**

#### **1. DEIALDIAREN XEDEA.**

Deialdi honen xedea hau da: Euskal Herria plazan gazteentzako zuzkidura bizitokiak hutsik gelditzen direnean, apartamentuak esleitzeko adjudikatarioen zerrenda eta itxaron zerrendak osatzea.

#### **2. APARTAMENTUEN BABES-ERREGIMENA ETA LAGAPEN-ERREGIMENA.**

Zuzkidura bizitokiak dira, erabilera zesio

## **AYUNTAMIENTO DE TOLOSA**

### **Anuncio**

El Ayuntamiento de Tolosa, con fecha 24 marzo de 2021, mediante Decreto del Concejal Delegado nº 2021/542, ha resuelto realizar la **convocatoria para conformar la nueva lista de solicitantes para la adjudicación de los alojamientos dotacionales de Euskal Herria plaza 1B.**

**Plazo:** Por lo tanto, se procede a su publicación y se establece un plazo de 20 días hábiles para la presentación de las solicitudes y documentación. Dicho **plazo comenzará el día 19 de abril de 2021 y finalizará el día 14 de mayo de 2021 (ambos inclusive).**

**Impresos y documentación:** El impreso y la documentación deberán presentarse en el Registro municipal del Ayuntamiento de Tolosa (UDATE) o a través del Registro Telemático municipal ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus))

**CONVOCATORIA PARA CONFORMAR LA NUEVA LISTA DE SOLICITANTES PARA LA ADJUDICACIÓN DE LOS ALOJAMIENTOS DOTACIONALES DE EUSKAL HERRIA PLAZA 1B.**

#### **1. OBJETO.**

La presente convocatoria tiene por objeto establecer un nuevo listado de personas adjudicatarias y elaborar una lista de espera para la adjudicación de las vacantes que se produzcan en los alojamientos dotacionales para jóvenes de Euskal Herria plaza 1B de Tolosa.

#### **2. RÉGIMEN DE PROTECCIÓN Y DE CESIÓN DE LOS APARTAMENTOS.**

Se trata de apartamentos dotacionales



erregimenean lagatzen dira eta zerbitzuak gehienez 3 urterako izango dira ezingo direlarik luzatu.

### **3. ONURADUN IZATEKO BETEKIZUNAK.**

Gazteentzako apartamentuak eskuratzeko nahitaez beteko dira jarraian adierazten diren betekizunak, ezaugarri pertsonal eta ekonomikoei eta herriarekiko lotura eta etxebizitza-beharrari dagokionez. Baldintza guzti hauek Tolosako Euskal herria plazako 1B erakinean gazteentzako 25 zuzkidura-bizitokiak erabilera zesioan elseitzeko oinarrietan jasota daude.

Laburbilduz, ondoren adierazten direnak dira:

1. Adinari dagokionean, hemezortzi urte beteak izatea eta hogeita hamabost urte baino gehiago ez izatea eskaera aurkezteko urtearen amaieran (abenduak 31)

2. Tolosako udalerriarekin eduki beharreko loturari dagokionez, jarraian aipatzen diren baldintzetako bat bete beharko da, gutxienez:

- Tolosa ohiko bizilekua izatea eta bertan erroldatuta izatea, gutxienez urtebete, oinarriak GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik atzera kontatzen hasita.
- Tolosan 10 urtez erroldatuta bizi izana.
- Tolosarekin lan lotura izatea, gutxienez 5 urte, oinarriak GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik atzera kontatzen hasita.

3. Baldintza ekonomikoei dago-kienean, urteko, 3.000-25.000 arteko diru-sarrera haztatuen baremoa ezartzen da.

que se ceden en régimen de cesión de uso durante un plazo de 3 años no prorrogables.

### **3. REQUISITOS PARA RESULTAR BENEFICIARIO/A.**

Para acceder a los apartamentos se han de cumplir los requisitos relativos a circunstancias personales, económicas, de vinculación al municipio y de necesidad de vivienda que se establecieron en las bases para la adjudicación de 25 alojamientos dotacionales para jóvenes en régimen de cesión de uso privativo de Euskal Herria plaza 1B de Tolosa.

De manera resumida son los que a continuación se señalan:

1. En cuanto a la edad, tener cumplidos dieciocho años y no tener más de treinta y cinco años a 31 de diciembre del año de presentación de las solicitudes.

2. En cuanto a las condiciones de vinculación con Tolosa, cumplir alguna de las siguientes condiciones:

- Residencia habitual y empadronamiento en Tolosa, con antelación mínima de un año, a contar desde el día siguiente al de la publicación de las bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
- Haber residido empadronado en Tolosa durante 10 años.
- Vinculación laboral con Tolosa con antelación mínima de 5 años, contar desde el día siguiente al de la publicación de las bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3. En cuanto a las condiciones económicas, las personas interesadas deberán acreditar unos ingresos ponderados entre 3.000 y 25.000 euros anuales.



Zergaldiari dagokionean, kontutan hartuko den aldia, Pertsona Fisikoen Errenten gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epea amaitutakoan, oianarri hauen onarpenaren justu aurretik dagoen zergaldia izango da (2019 Errenta)

4. Etxebizitza premiari dagokionean, interesatuek, errentamendu araubideko etxebizitza babestuak, zuzkidura bizitokiak eta parekatutako etxebizitzaren eskatzaileen erregistroaren erregelamenduaren 9. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte: zuzkidura-bizitokiaren onuradun guztiek —elkarbizitza unitateko kide guztiak sartzen dira onuradunen multzoan— bete behar duten baldintza da etxebizitzarik ez edukitzea era hauetakoren batean: Jabetzan - erabatekoan edo ez azalera eskubideko jabetzan-, edota biziarteko gozameneko eskubide erreala bezala, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako batean, etxe premia definitzen duen arautegi autonomikoaren terminoetan eta salbuespenekin; edo, etxebizitza edukita ere, horrek ez betetzea indarrean dauden arauak xedatutako bizigarritasun baldintza minimoak.

#### 4, INTERESATUAK/KUPOAK

1. **MUGIKORTASUN URRI IRAUNKORRA DUTEN PERTSONAK:** Tolosako Udalak etxebizitza bat erreserbatuko du bizitokiaren baldintzak bete eta mugikortasun urri iraunkorra dutenen gazteentzat.
2. **BERE KARGURA ADINGABEAK EDO ADINEKOAK** dituztela egiaztatzen duten gazteentzat BI LOGELATAKO bizitokia erreserbatuko da.

En lo que al periodo computable se refiere, será tenido en cuenta el período impositivo que, vencido el plazo de presentación de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sea inmediatamente anterior a la aprobación de las presentes bases (Renta 2019)

4. En cuanto a las circunstancias de necesidad de vivienda serán las establecidas en el artículo 9. del reglamento establecidos en el Reglamento del Registro de Solicitantes de Vivienda protegida en régimen de arrendamiento, alojamientos dotacionales y viviendas asimiladas del Ayuntamiento de Tolosa que establece “deberán cumplir el requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio, en los siete territorios de Euskal Herria y ello en los términos y con las salvedades establecidas en la normativa autonómica que define la necesidad de vivienda o salvo cuando la vivienda de la que dispongan no alcance las condiciones mínimas de habitabilidad establecidos en la normativa vigente”.

#### 4. PERSONAS INTERESADAS-CUPOS:

1. **JÓVENES CON MOVILIDAD REDUCIDA PERMANENTE:** El Ayuntamiento de Tolosa reservará 1 vivienda adaptada para las personas jóvenes, con movilidad reducida permanente que cumplan el requisito de residencia.
2. **PERSONAS JÓVENES CON MENORES O MAYORES A SU CARGO:** Se reservará la vivienda de DOS HABITACIONES a personas jóvenes empadronadas en Tolosa que acrediten, en el momento de la presentación de la solicitud, tener a su



cargo hijos/hijas o personas mayores.

**3. BABES BEREZIKO BESTE GIZARTE-EGOERA BATZUK:**

genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak, Ezintasun psikikoa dutela egiaztatzen duten pertsonak. Bi (2) bizitoki gordeko dira.

**3. OTRAS SITUACIONES SOCIALES DE ESPECIAL PROTECCIÓN:**

Mujeres víctimas de la violencia de género, personas que acrediten la condición de discapacidad psíquica. Se reservarán dos (2) viviendas.

Hiru kolektibo horientzat erreserbatutako apartamenturen bat hutsik geratuko balitz, Tolosako udalak esleitu diezaioke sustapen honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten beste biztanle batzuei. Bi logelatako bizitokiaren kasuan, lehenasuna izango dute senar-emazte edo izatezko bikoteak direnek.

En el caso de que alguna de las viviendas reservadas a cualquiera de los 3 colectivos mencionados quede vacante, el Ayuntamiento de Tolosa podrá arrendar la vivienda a otros/as ciudadanos/as que cumplan con los requisitos exigidos en esta promoción, priorizando, en el caso del alojamiento de dos habitaciones, a las solicitudes presentadas por matrimonios o por parejas de hecho.

**5. BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK.**

Esleipenean parte hartzea erabaki duten eta zozketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten interesatuekin zozketarako onartutakoen behin-behineko zerrenda egingo da. Zerrenda hori Dekretu bidez onartuko da eta jendaurrean jarriko da Udalaren iragarki oholean eta web gunean, 10 egunen epean. Denbora horretan interesatuek alegazioak egin ditzakete, behin-behineko zerrendaren gainean.

**5. LISTAS PROVISIONALES.**

Con los interesados que hayan optado a la adjudicación y que cuenten con las condiciones para tomar parte en el sorteo, se elaborará una lista provisional de admitidos y excluidos al sorteo. Dicha lista, aprobada mediante Decreto, será expuesta al público en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento, así como en la WEB municipal, durante un período de 10 días. Durante este plazo los interesados podrán efectuar las alegaciones acerca de su inclusión en las listas provisionales.

Jasotako eskaeren arabera kupo hauetan banatuko da zerrenda:

- A) Mugikortasun urriko eskatzaileena.
- B) Bere Kargura Adingabeak Edo Adinekoak
- C) Babes Bereziko Beste Gizarte-Egoera Batzuk
- B) Orokorra.

En atención a las solicitudes recibidas, el listado se subdividirá en los cupos siguientes:

- A) Solicitantes con movilidad reducida
- B) Personas jóvenes con menores o mayores a su cargo
- C) Otras Situaciones Sociales De Especial Protección
- D) Cupo general.

**6. BEHIN BETIKO ZERRENDAK.**

Alegazioak aztertu eta ebatzi ondoren

**6. LISTAS DEFINITIVAS.**

Tras responder las alegaciones que



behin betiko zerrendak onartu dira eta hauek udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratuko dira.

Behin betiko zerrendak onartzeko erabakiaren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtoa edo, hala badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. 5

Parte hartzaileen behin betiko zerrendetan onartutzat agertzeak ez du esan nahi eskatutako baldintza eta betekizun guztiak betetzen direnik, eta apartamentuen kontratuak sinatu aurretik berriro egiaztatuko da baldintza eta betekizun horien betetzea.

## **7. ESLEIPENDUNEN ZERRENDA ETA ITXARON ZERRENDA EGITEKO ERABILIKO DEN HAUTAERA.**

Esleipendunen zerrenda eta itxaron zerrenda Udal Idazkaria edota fedemaile baten aurrean egingo den zozketa publiko bidez zehaztuko da. Zozketaren eguna eta lekua behin betiko onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera jakinaraziko dira.

## **8. AUKERATUAK.**

Zozketan egikitutako hurrenkeraren arabera osatuko dira esleipendunen zerrendak eta itxaron zerrendak. Kupo bereziei gordetako apartamentuak hutsik geratuko balira kupo orokorreko pertsonen artean esleituko lirateke.

## **9. ITXARON ZERRENDA.**

Kupo bakoitzeko Itxaron zerrenda bat osatuko da.

Onuradunen ukoarengatik edo kontratuaren amaieragatik gerta litezkeen

pujieran interponerse se aprobarán las listas definitivas, las cuales quedarán expuestas en el tablón de anuncios y la web municipal.

Contra la lista definitiva de admitidos y excluidos se podrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente a su notificación o publicación directamente ante la jurisdicción contencioso administrativa ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián.

La inclusión en las listas definitivas de participantes no presupone el cumplimiento de las condiciones y requisitos exigidos, que se volverán a comprobar con anterioridad a la firma del contrato.

## **7. FORMA DE SELECCIÓN PARA LA ELABORACIÓN DE LA LISTA DE ADJUDICATARIOS Y LISTA DE ESPERA.**

El orden de la lista de adjudicatarios y la lista de espera se determinará mediante un sorteo público, que se llevará a cabo ante fedatario público o Secretario Municipal, cuyo día y lugar de celebración se dará a conocer junto con las listas definitivas de admitidos y excluidos.

## **8. SELECCIONADOS.**

Siguiendo el orden establecido en el sorteo se confeccionarán las listas de seleccionados y las listas de espera. Si quedaran vacantes los apartamentos reservados para el cupo de movilidad reducida, éstos se adjudicarán entre los integrantes del cupo general.

## **9. LISTA DE ESPERA**

Se establecerá una lista de espera en cada uno de los cupos.

De esta manera, las vacantes que pudieran producirse por renuncia de los



TOLOSAKO  
UDALA

hutsuneak itxarote-zerrendaren bidez beteko dira.

Deialdi honetako kupoetako itxaron-zerrendak hiru urteko epean egingo den hurrengo adjudikaziorako deialdia egin baino lehen agortzen badira, esleipen hau amaitu ondoren alokairuko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan izena eman eta Euskal Herria 1B plazako zuzkidura-bizitokiak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileekin osatu ahal izango dira zerrendak, betiere inskripzio-ordena errespetatuz.

#### **10. ESLEIPENAREN OSTEKO BETEBEHARRAK.**

Behin-behineko esleipendunek errentamendu kontratua egiteko formalitateak bete beharko dituzte.

Halaber, adierazi behar da betebeharrak guztiak, epea, kanonak, baldintzak ez betetzea, eskubide eta obligazioak, etxearen zainketa, disziplina araubidea eta gainontzeko arautegia, Tolosako Udalak 2014ko martxoaren 28an onartu zituen Tolosako Euskal herria plazako 1B erakinean gazteentzako 25 zuzkidura-bizitokiak erabilera zesioan elseitzeko oinarrietan jasota daudela. (GAO 82. zkia. 2014Ko maiatzaren 5koa)

beneficiarios o finalización de los contratos se cubrirán por los integrantes de la lista de espera.

Llegado el caso de que las listas de espera de los cupos de la presente convocatoria se agotaran antes de que se pueda convocar la siguiente convocatoria, que se realizará en el plazo de tres años, las listas se podrán ir completando con los solicitantes que, una vez finalizada la presente adjudicación, se incorporen al Registro de Solicitantes de Vivienda de alquiler y cumplan los requisitos para optar a los alojamientos dotacionales de Euskal Herria plaza 1B, y respetando en todo caso el orden de inscripción.

#### **10. OBLIGACIONES POSTERIORES A LA ADJUDICACIÓN.**

Las personas adjudicatarias deberán cumplir con las formalidades de celebración del contrato de cesión de uso.

Asimismo, hay que indicar que todas las condiciones, el plazo, los cánones, incumplimiento de condiciones, derechos y obligaciones, conservación del inmueble, régimen disciplinario y demás aspectos legales están regulados por las Bases para la adjudicación de los 25 alojamientos dotacionales para jóvenes en régimen de cesión de uso privativo de Euskal Herria plaza 1B de Tolosa, aprobadas por el Ayuntamiento de Tolosa con fecha 28 de marzo de 2014 (BOG N°82 del 5 de mayo de 2014).